

BERTSOLARI ZAHARREI OMENALDIA

Donostiako "Astorian" ginen Azaroaren 25ean. "Santo Tomas" eskualdeko ikasketak eratu zuten bertsolari saio hau zenbat ikaslerentzat diru piska bat sortzeraren. Ez goaz txoko honetan jaialdiaren herri ematera. Beste orrialdetan egia dugu hori.

Bertsolariak baxenak gure artean oraindik arrakasta berezia, esan nahi genuke hemen. Aho geroz uzten du oraindik eskalduna, ondo eratuak bertso saioak.

Gizenak badu egia, onaren eta ederraren irrikia. Eta eskaldunak aparteko grazia hartzen dio egia, onari eta ederrari, poesi-senaz egindako bertsoan.

Herrian dago bertsolaritzaren oinarria. Herriak sortzen eta gordetzen duen aho-literaturaz; herriak duen iaiera, pentsaera eta arrazoibidea; bertsoak gozatzeko eta zabaltzeko duen egituraz. Badu Euskal Herriak bertsoagintzarako eta herri-poesiagintzarako molde eta mami aberats bat.

Gure kultura sakonki aztertutakoan, euskal-antropologia bat egin beharra daukagu. Horretarako bide zabala aho-literatura dugu: ipuialdi, antzerkia, olerkaria. Hemen nabarmentzen zaizkigu gure pentsaera, gure iaiera, gure eder-sena. Gure herri-nortasunaren doharrik bereziak.

Bertsolaritzak antropologiari buruz ez ezik, gaurko poesiaren egin-moldeak buruz ere erakusten berezia du. Aho-literaturaz jo duelako dago baita indarrean Hego Amerikako literatura. Ez luke zenbaitek bertso kutsu hau galdu behar olerkigintzan. Guk ere jite eta taxu berezia eman behar digu poesiari.

Baina jarrai diezagun hariari. Gaititu dituzte gure bertsolariak garai bateko azoka, ostatu eta sagardotegi giroak. Gaur ez dute inon auzateko loturarik. Itzal handia dute nahiz aretoetan, nahiz irratian, nahiz elizan. Jaialdiak egiteko era berriak hartu dituzte. Zorrotzak, neurriak, era askotakoak eta gaurko gizarte giroaren eskakizunei lotuak egiten dira oraingo jardumaldiak.

Baduk bertsolaritzak industri giroaren ere irauteko kementa. Garia garaiko giroa moldatu da bertsolaritzara. Hortarako bat-bateko jardunaz egiten denari ondo loturiko poesiagintza herrikoia egin behar dugu. Oztoporik ipiniko ez balizate, industri giroa ondo moldatuko lirakeen bertsolariak badira.

Ez dezagun ahanitz ordea, bertsolariak maila honetara irxiti badira sagardotegi, ostatu eta feriatan gorde zen bertsolaritzari esker dugula, besteak beste. Giro hartako bertsolariak eutsi diote, aldi batean, bertsolaritzari.

Bizi dira oraindik gure artean giro hartan lan egin zuten bertsolariak. Hoietaiko zenbait jardun izan da txapelketetan eta herriko plazetan ere. Zenbaitek ez du giro hartatik ateratzeko egokiera eta biderik inon. Halere, badute beren meritua.

Urtero egin ohi zaio bertsolariren bati omenaldia. Oso bidezkoa, noski. Bertsolariaen beharrei eta adinari begiratu ohi zaio gehienbat. Balentzin Enbeita aukeratu zen datorren omenaldirako. Entzuleek hautatu ohi dute. Herriak, ordea, ez daki askotan bertsolari batzuen beharrik eta izenik. Horregatik hasi ginen, tarteka-marteka, batzuei elkarriketaketak egiten.

Baina ezinezkoa dela denek elkarriketaketak egitea, ikusi dugu. Bertsolari zahar mordaak bati dago han eta hemen. Aita Zaharari esker jakin ahal izan dugu askoren berri. Ez harri batere, birurogei urte betetako hogeiren bat bertsolari, Euskal Herri osoan, egoteaz. Hoietaik hamarren bat, hirurogeitaka hamarren bat besteak ereongo dira. Badira datorren urtean larogei beteko dituztenak ere.

Noizkorako txanda hartu, urtean bati bakarrari eginez? Zergatik ez zaie denak batera egiten Donostiako Belodromoan, batez ere hirurogeitaka hamar urte bete dituztenei. Jaialdi zoragarri eta gozagarri bat era daiteke. Bakzaltzeko ere ez legoke nolabait zerbituko duten leku handi baten bila ibili beharrik. Aisi litzateke ostatu edo jatetxe batzuk hartzea eta bertsolari zahar omen-du bakoitzarekin bertsolariak eta jendea hanatzea.

Gure utes, honelako zenbait egin beharra dago bertsolari zahar guztiekin Muxikako, "Iturri" bertsolari elbarriari egin behar litzaiokkeenaz baztertu gabe, jakina.

M. UGALDE

Getharian halako batez

Euskal Herria kanpotarrez, txime-niz eta kiratsez mukurruraino bete-zen ari zaigun honetan, populur-rik gabeko eskualde hutsik aurkitzeko badu halako karma berezia.

"Ekiak" deritzaen bere azken artiku-larri berririo gogoratu digunez, euskal xoko bakartien aurkikunde eta azalpidean "Latxaga" dugu maisu.

Nik neuk ere, batzutan behintzat, bilaketa horietara lerratuko joera nabaitu ohi izan dut neurri buruan; baina ez dut amore eman nahi izaten. Zergatik den azaltze lu-zuegia litzateke.

Orain dela gutxi, esate baterako, "Lapurdi ahanitzaz" bi hitz esateko asmoa izan nuen: Ahurtiriz, Urke-taz, Lehontaz, Aturri ondoko gure herriak isilez beraz. Mementoan bertan ez nuen egin, ordea; eta neure asmo hura noiz mamituKO ez dudan bildur naiz.

Gaur banao, ordea; eta lerro hauetan mintzatuko naitzaizuen La-purdioko beste eskualde hau ez da-go Lehontzak dorre hirukuna da-gokeen moduan ahanitzirik. Ez dago era berean hutsik ere. Baina ahan-tzia dago, hein batez, Getharia zen-bait alderidertirik; eta Z. ARGIAren irakurle askori uezagun ere gerta-dakiokela uste du. Non da lpa-rraldeko Getharia?

—oOo—

Giroa epel, zerua garden, itsasoa bare, urberhera hartan harroak taze-koak agirian... Goiz ederra Azoka hondarreko hau, ederra izaten da udazkena Euskal Herrian!

Eta Getharia aldera abiatu naiz, beste askotan bezala. Zer erakar-ten ote nau hara? Ez dakit, bene-tan.

Itsas-hegitik joan naiz gaur. Erre-mardiko hondartzak zabalean egure-bakar bat topatu dut, zakur kaskar bat lagun, itsasora so geldigeldirik, giroaren baretasunak bareturik bezala. Ez urriti, Arxilua eta Xiba-ko antzartzen artean, hiruzpalau on-tzi urdina kolorez nabartzuz: berde, gorri, zuri. Udarako keseta-saltzaila-eren egurrezko txabola, hetsita; hon-dartzarako bidetako etxe asko, ge-hienik hetsita; eta eskualde ba-kartian inorxero ere ez, ezertxo ere ez: agurea eta ni biok, eta zakurra hondartzak zabalean erotua eta bak-urra, eta abar pilokat eta plasti-kozko hondakinak han eta hemen metaturik. Harroak doi-doi ageri,

ilun, ia-ia beltz itxuraz; eta uhin ezin ttipiagoko han eta hemen le-berhtzen, apar zuriz irribarre egiten, eta herririo ere, hondar etzera bai-no lehen, ur urdinera biltzen. Bi-kainak dira itsaso txikiak hondar-tza harrokatu bakartiki! Ikuskari arunta olatutxo nagik hain ibile-rrona; eta ahaztu ezina halere, izadiak eskaintzen dizkigun ategien isilak oro bezala.

Iparralderago joan, eta kaxko ba-terarik begiratu dut Xibauko hon-dar-gune borobil polita, kolko ba-siatien ilaran bigarrena. Hondar uz-tzia osorik zetzan han, beheeran, eta inor ere ez ingurutuan. Doni-banetik bost bat kilometrotara Oze-anian gerta nitekeen bezalatsu...

Seirehunen bat metro aurrerago, eta Malarkoenia-ko puntta pasata, Zenitz-Akhotz-eko hondartzara irxiti naiz; eta ez beste biak baino jende-sugatu atxeman. "Millaizketa" irakurri nahi nukeen lekuan "Plage Les Tamaris" irakurri dut. Parking gaitza eta berria oso-oso eneta-ko! Bazter basa hartan ere, inor ez: bakardadea bakarrik, eta itsas-uhinak nagiki lehertzen ari.

Eta Getharia irxiti naiz.

—oOo—

Goitikako bide zuhaitzuan barre-na sartuz gero, eskuin aldeko xa-let zaharren xarmak hunkitzen na-i. Denak hutsik itxuraz. Eta luzean jokatzeko frontoiean ere inor ez. Eta aurrez aurreko horman hau irakurri dut: «Herriko Etchea». Bai-na ingurutuan inor ez.

Treinarene gaineko zubitxoaren al-dera joan naiz: estazioa hutsik ze-goen, euskal tankerako ostatu gait-zak hetsita, ia denak oro berdin. Harakina eta okina harrapatu ditut eguzkitan zutik, atean so eta zai; eta denda batetan, ez bitan, ande-re pare bat ikusi dut presarik ga-beko herrietan. Doinuaz ez zuten bertakoa; eta euskaraz ari ez zi-rela esateko beharrik ba ahal dago?

Zubitxo pasata, Mimigueren denoan zabalik; eta honen atzean dagoen talaxora joan naiz. Eta bestetan bezala hantxe gelditu naiz begira. Harrizuta. Zer! hunkitzen ote nau han horren berezirik?

Kaibaberak beseburutuan hagoan ekarki, eta oski gisa bota zuri gait-zak, hantxe zetozen bi arrantzale, hondarretan barrena. Bidarte alde-tik, eta Getharian beti ere bezala, olatuak hantxe lehertzen ziren, aurrez aurre, eta giroa itsas-zurumu-ruan etengabeaz oratzen. Ur-zurumu-ruan bizi diren herriska dira Cau-terets-eko eta Getharia. Getharian Cau-terets-eko eta La Raillères oroitzen naiz; eta Cauterets-en Gethariaz.

Milazken artetik bidetxigorak, gora eta behera. Dena dago aldats gorrian Getharian. Behereko kale-aren ganetik, zubi konkondun zu-riska bitxi bat, itsusia beharbada, haurtzaro kutsukoa eskierki. Eta itsasora begira, kubista pleguan agian eraiakik, alimaleko etxe ba-tzuk, kresalak eskatuak. Zer ote du beraz Gethariak? Badu zenbait halere, ez da dudarik. Karrikatxoan elkargainka bera ote da? Labiner-torren trinkoa? Trein-estazioaren ximplea? Dena jostallu gisa eta eskuartearen antzemate ote? Dena bera: Getharia «naif-en parabisua litzateke.

Giro olerkitsu hartan ez gazte izana damutzen zaio inori.

Eta hantxe gazte izanak eta ha-ziak eskierki betirako markatzen. Hiribarren olerkariak bazekien:

«Nihon guti etxerik hain xurri- [denik, nahiz orok kanpoa duten ederre- [nik. Bizitzeko duena hetarat dohala, nihon ez da hobeki izaten odola.» (Euskaldunak poema, 133)

Eta malenkonik bete nau bakar-dade hartan. Eta norarik gabe ibili naiz gora eta behera: «Haispoure», «Béheréta», «Chemin de Laharra-ga»... Euskal leku-izenak, frantses-turki, ugari. Gutxiexago etxetean. Baina... non debru dira getharia-rrak? Nora ote dira? Zer gertatu zaie?

«Itsasoon du bazka iende [gehienak, ez ematen aspaldi lehenago [arrainak»

Zer esan ote zukeen gaur Hiri-barrenek?

Txit eskulangintza berezi gisa, eta oso-oso jende gutxiren bizibi-de, papinintzako soinekoak egi-ten dituen lantegi txiki bati atxiki dio Gethariak. Besterik zer du? Lu-rraldez urri, nekazaritzarri egin ezin. Zer ote, beraz?

—oOo—

Lapurdioko Forua gaitzean, eta Añuñemendiko muga XIX. mendean hestean, kinka ezin gaitzagoan ger-tatu zen Getharia, gainerako lapur-tar antzaltze herri gutxiak bezala. Zeren-eta Lapurdioko antzaltzeak laruiean eta Nafarroan saltzen bai-tzuten ia beren arrantza gutzia.

Ekonomi-muga, horrela, Añuñe-mendin finkatzean, errekaratu egin zen kostaldeko herri gutziaren bi-zimodua. Ziburua, Donibane, Bidarte, Getharia, Miarritze bera, hanartean bale-arrantzeak trebe eta kapitain ausarten sorleku izanak, «erdia je-tsi ziren jendaketa: 600 lagune-tatik 318-tara Getharia. Eta bide beretik abiatu ziren beheruntz lapur-tar burtu gutziak. Gaur harriga-rri ere gertatzen zaizkigu harmar-rien bale harrook...

Zer egingo ote zuten getharia-rrak? Txirroi gelditzen zaien azken erremedioa baliatzea: beren burua saltzea. Eta lurrak, etxek eta xar-mak oro saldu zizkieten arrotzei; eta berak Ameriketara joan ziren.

Gaur egun Gethariako 60 bat hek-tara-lur daude kanpotarren eskuetan. Bertako Udaletxeak, ezpondak eta zuloak barne 141 Ha. baizik ez ditu bereak. Nola nahi duzu, hor-taz, neguean inon inori agiri dadin? Getharia hutsik dago: ia-ia Erro-mardik, Xibau eta Zenitz-Akhotz be-zain hutsik. Jabeak Parisa, Toulou-sean, Bordenale eta bestetara joan dira; eta Getharian... jabeen etxek gelditu zaizkigu hutsik.

Etxeok hutsik, eta itsasoaren ur-dina.

Egia du benetan Jean Luis Davant zuberotar suharak Gethariari dagokionez: «Iparraldean gizonik gabe ditugu lurrak, eta gizonak lu-rrik gabe». Zer zehatzagorik gure herri honen heriotza larrosa azaltze-ko? Euskal leku-izen aldrebes-tuez gain, zer atxiki ote du Getha-riak eskalduniki?

Nagusiak joan dira, jabeak joan dira, arrotzak joan dira. Baina bertakoa... oraindik ere lehenago joan ziren gizaioak!

Kondu gaitza diagu!

Oso oso ezaguna den markinar kaionje bat halere (nor den ez dut esango) gure eresi triste hauen kontra dagoela badakit: «Oso pozik bizi direz horrela lapurtarrak. Itxi egizuz baketan»...

Horregatik naztaie bildur honen tankerako artikuluei. Bakardade edo malenkoniaz horien poesiak, izkutan daramazkien giza-trajeria eta mespretxu zitala ahantz eraz ditzakeelako. Hitzik ere gabe sun-tsitzen ari den herriaren oinaze etsia!

LARRESORO

ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoko argitaratza (Kale Nagusia, 50-1.º Buriada-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 616

ARPEDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldiz	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irakokla:
«Gráficas Navas»
A. Adoain, 1 IRUIREA
D. L.: NA. 80-1963

Lana, langilea, lantegia BORROKA GERO ETA ZAILAGOA

Bai jauna, bai. Borroka gero eta zailagoa izango zaigu. Gaurregun jauntxoek, ekonomian dirudunek erakusten duten indarra menperatzea, ez da batere erraza izango.

Era askotako jauntxoak ditugu. Batzuk ahulak, indargabeak, nola aberastuko buru belarri dabilzkanak, baina oraindik lantegi koskorra ezin indarturik dabilzkanak, eta batzuk, abertzale izenekoak ere bai.

Beste batzuek goragotik jotzen dute, banka eta diru iturrietatik xurgatzen dute, beste gainontzeko enpresa txikiak menpean hartzen dituzte. Lehengo jauntxo horien aurka borrokatzeak lanik ematen badu, pentsa, gero, hauekin oraindik askoz zailagoa dela, batez ere administrazioari lotu loturik daudelako.

Guzti hori bagenekien eta ez gintuen gehien arritzen. Baina azken aldi honetan kanpotik datorrigun uhofdeak, atzeritxik hemengo estaduan inbertitu duten kapitalak, nork neurtu? Azken urte honetan, FORD delakoa Espainian lanean hasteko dela eta, amaika esames sortu da bazterretan. Horko telegrama hotsa, horko lantegia nork bere lurraldean jarri nahia, horko harreman eta elkarriketeta, horko «mesias» salbatzaile kutsu eta tankera.

Horrelako pentsu eta erabakiek izan dezaketean garrantziaz, ekonomia aldetik batez ere, jabetzea ez da erraza. Urtero urtero hainbeste gizon-emakume kanpotarrentzen lurraldean, horrelako enpresa

batek, maiztzeoko eurik baino estimizazio haundiagorik izango ote duen ere, goagan hartzeko da. Deskapitalizatuz doakigun herri honetan ere, agian, onurakorra izango litzaiogukeela ez du ezekorik emango. Gai honek, egia esan, ari mutur asko ditu, eta ari mutur horiek guztiak lotu behar dira, irizti zuhur eta zentzuzkoa eman nahi baldin bada.

Langileko aldetik begiratuza, ordea, gauzak aldapatsu jarriko zaizkigula, ez dago dudarik. Lantegi txiki batean ezin elkarturik bagabiltza, nola langilariaren elkartasunari irau-erazi? Lasarten edo Gasteizen oporketan daudelarik, ezer lortuko ote da, Parisen edo beste leku batean ordu extrak sartzen ari diren bitartean? Barcelonako SEATko Italiako FIAT langileekin ezin elkartu? FORD berak lantegiak nola kontu ahal ditu mundu osoan saba banatuta. Europan bertan, bai Kolonlian, Ambersan, Amsterdaman, Belfasten, Leamingtonen, gutxi batzuk baino ez aipatzearen, baditu lantegiak. Enpresa hauetako diru mugimendua, Europako zenbait estadudunera baino haundiagoa da. Ekonomiaren aldetik, zenbait estadak baino gehiago dezaketela, ez da dudarik.

Lantegiak, enpresak haundituz joan zaizkigun neurrian, langileak ere elkartzen saiatu izan dira. Langile-sindikato indartsuak osatzeko asmo eta gogorik ez da falta izan. Hor daukagu sindikalismoaren in-

darrak «centrales sindicales» delakoetan bilduta. Bakoitzak bere pentsaeraren, bere xode eta helburuaren arabera bilduak, baina elkartuta behinik behin.

Baina, azken hogeitabost urte hauetan, enpresa multinazionalak lortu duen indarra ikusita, langile borroka-erestrategia nola antolatuko, kezkatu dabilza sindikalistak. Eta ez dute, oraingoz, borroka eskatzen duen etekinik lortu.

Gure artean ere ondo pentsatu beharrezkoa izango da. Lehenago bi herri aipatu ditugu. Orain bertan, idazten ari naizen honetan, MEDASA geldi dago, diru gorabeherak direla eta; dirudienez, ez dute konponketarik izan. Lantegi hau amerikarren eskutan dagoenez gero, ez daiteke lehengo molde zuzenetan borroka bideetan aita. Nola egin, nola joka? Hori besterik da. Baina, bete bete hurril dabilenak, horrenbeste jakin behar luke.

Borroka gero eta zailagoa da, are gehiago herrian erroturik, herriaren onagoan izanik, irau ez irau-ngo dagoen herriari erantzun nahirik, herriar bezala langilegoaren alde dabilenak. Ez noski, herriar-suna eta langilegoa elkarren aurka daudelako. Ez daude elkarren aurka, are gehiago, ez dugu garaitzapenik lortuko bata eta bestea go-gaon hartuaz borrokatzen ez dugun artean.

MIKEL UGALDE